EUSKAL IRAKASKUNTZA AUTONOMI AROAN (1983-1994)

Paulo Iztueta Armendariz
Bilbo, Argitarapen Zerbitzua. Euskal Herriko Unibertsitatea, 1999

Hala literaturan nola idazlan teknikoetan, ulerterraza izatea eskertzen da. Paulo Iztuetaren euskarazko lanak irakurtzeak hizkuntzarekiko gozamena ekartzen du beti, eta aldi berean gaiarekiko motibazioa ziurtatzen du. Beste era batean esanda, Paulo Iztuetaren lanetan plazerra eta jakinmina uztartzen zaizkigu.

Ongi etorri bikoitza emateko aukera ezin hobea eskaintzen zaigu oraingo honetan, besteak beste Euskal Herriko Unibertsitateko Pedagogia Saileko irakaslea den Paulo Iztuetak egindako liburu bat eskuartean dugulako, eta, bestetik, 2000. urtean martxan jarri den *Utriusque Vasconiae* argitaletxe berriaren lehen alearen aitzinean gaudelako.

Lan honek Hezkuntzaren Soziologiako teoria eta paradigma kritikoa ardatz gisa harturik, hamaika urteko epealdiaren barruan Euskal Herriko Hegoalde osoan Ikastola Elkartetik kanpora ikastetxeratutako euskal hezkuntzaren norabidearen aukeraketa jorratzen du. Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan hezkuntza-legediaren inguruan elebitasunaren eztabaida piztu zenetik hasi eta, gizartearen desadostasunari gain hartuz, hitzarmen politiko baten ondorioz Euskal Eskola Publikoaren Legea aurrera ateraz indarrean jartzen denera bitartekoa lantzen da. Hori guztia aztertzeko, Hezkuntza Soziologi egitatearen prozesuak eskatzen dituen talde politiko eta kultur elkarte ororen ekarpenak izan dira Paulo Iztuetak erabili duen ipar-horratza.

Liburuaren izenburua hauxe da: *Euskal Irakaskuntza Autonomi Aroan (1983-1994)*. Sei ataletan banatzen da. 203 orrialde ditu, 37 taula eta 6 dokumentu-eranskin, bibliografia, eta liburua ongi erabilia izan dadin irakurleari aldez aurretik emandako hainbat gomendio.

Argitaratzeko bidean atal bakoitzak izan duen ibilbidea aipatzen da aurkezpenean; izan ere, bigarrena eta hirugarrena izan ezik, hainbat argitalpenetan aurrez emanak baitziren gainerako atalak. Dena den, Paulo Iztuetak dioen bezala, «bere garaian idatzi eta argitaratu bezala doaz guztiak, ... orduko hezkuntza-errealitateari buruzko interpretazioan asmatu ala ez», duela hogei urteko eskaintzak biltzen baititu liburuak.

Edukia aurkeztean, hauxe azpimarratu nahi dugu: euskal irakaskuntzaren izate pedagogiko, soziologiko, historiko, ekonomikoa, eta abar, beste edozein lekutakoa bezalaxe, egunero egiten doala eta, beraz, egun Euskal Herrian diharduen hezkuntzaz, kuantitatiboki zein kualitatiboki, geroz eta gehiago dakigula.

Liburuaren eskaintzan, ikerketa-ildo soziologikotik jorratutako metodologia eta interpretazio zehatzak aipatzen dira. Esaten da azken aldiotan euskal irakaskuntzaren inguruan irakurritako lan batzuei darien itsutasunak bultzatu

duela lan horretara. Eta kezkaturik agertzen da, gogoratzen digunean 1983tik 1994ra bitarteko zein geroztiko ikerlan guztiek (argitaratu gabeko asko tartean, nahiz eta den-denak emankorrak izan...) dagoeneko bibliografia sendo bat osatu beharko luketela. Eta gure ustez arrazoirik ez zaio falta, izan ere, hezkuntzaren errealitatea aldakorra den neurrian, bere eguneratzea eta garapena etenezina bezain bukaezina baita.

Liburuaren aipatu sei atalak kronologikoki sailkatuak datoz. Lehenengo bietan, Eusko Jaurlaritza 1981ean A, B, eta D hizkuntza-ereduen plangintza onartzen hasi zenean, eta 10/1982ko Arauzkotzeko oinarrizko legea, eta 15/1993ko uztailaren 27ko EIKE legea egin zituenean, Euskal Herriko Hegoalde osoan gizarte-erakunde eta talde desberdinetako kide edo banakoen artean euskal irakaskuntza ez-unibertsitarioan hezkuntza elebidunaren lehen urratsak nola egin ziren agertzen digu.

Lehenengo atalak, espreski, aro horretan ikastolek hainbat esparrutan bizi izandako auzia gogora dakarkigu: ordura artekoan izandako bilakaera; hizkuntza-ereduen erasoa; administrazio-antolaketa berriak, eta, nola ez, elebitasunaren eztabaida pedagogiko-psikologiko-soziologiko-zientifikoak eta politikoak, noski.

Bigarren atalak euskarak irakaskuntzan bizi duen errealitatera hurbiltzen gaitu: alde batetik, irakaskuntza ez unibertsitarioan ikasleek eta irakasleek bizi duten egoera, euskararen ezagutzak irakasleen artean sortzen duen kezka, ikastolaren dimentsio familiarra, historia, hedapena eta kokapena; eta, bestetik, Bilbo, Deustua, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko Irakasle Unibertsitate Eskoletako ikasle-irakasleen kopuruak eta euskararen ezagutzaren inguruko datuak. Euskal Eskolaren funtsezko helburu eta mugei buruzko gogoeta eginez eta plangintza eraginkorraren eta botere politiko handiagoren beharra azpimarratuz bukatzen da.

Hirugarren atala ikasleen matrikulazioaren eta hezkuntza ereduen arteko erlazioaz ari da, bai eta demografia eta lanpostuen artekoaz, eta Eusko Jaurlaritzak gai honen inguruan ezagutzera emandako emaitzak testuinguru demografiko eta geografiko zabalago batean kokatuz, osatuz... horren guztiaren eragina zein den azaltzen du.

Laugarren atalak Euskal Eskolaren ikuspegi historikoa eskaintzen du, hizkuntzaren egoeraren ikerketa eta estatistikaren argitan. Gainera irtenbide berri batek eskatuko lituzkeen proposamen juridiko-politikoak, pedagokikoak, soziolinguistikoak eta antolakuntzazkoak aztertzen ditu.

Bosgarren atala laburra da. 1993ko maiatzaren 25ean du muga, hau da, ikastolek publifikazioaren eta titularitate propioaren artean erabakitzeko zuten ultimatumaren data-muga. Gizartearen hainbat mailatan euskal hezkuntzaren, ikastetxeen eta irakaskuntzaren gai mamitsuaren inguruan izan zen eztabaida sutsu eta gordin bezain aberatsa aztertzen da atal horretan. Atalak Paulo Iztuetaren kezka nagusia zein zen nabarmentzen digu: hezkuntza-komunitatea osatzen zutenen eskubidezko eskabideak zein erakundek bideratuko zituen.

Azken atalean, gertatutako guztiaren ondorioz, eskola publiko-pribatuaren gainetik Euskal Eskola Berria lortzen ahalegintzean dagoela gakoa dio Paulo Iztuetak, eta horretarako biderik

sendoena, ikuspegi sozio-historikoaren laguntzaz, euskarazko irakaskuntzaren garapena gehien baldintzatzen duten faktore politiko-juridikoak eta soziolinguistikoak aztertzean aurki daitekeela dio, zenbait irtenbide eskainiz.

Hasieran aipatu ditugun sei dokumentu-eranskinak hauexek dira:

1. 1983/4/15ean STEE-EILAS, HB, EE, LKAI, EMK eta NIko Irakasleen Koordinakundeak "Documento base de EEPA" deiturikoa.

2. 1983/4/24an "Irakasle Elkartea. Euskal Irakaskuntzarako morroi isila. Irakasle elkartearen aldakuntza" izenarekin Euskarazko Kulturaren Batzarreak (EKB) argitaratua.

3. 1983/11/17-18an maisu-maistrek ezagutzera emandako "Ikastolaren etorkizunari buruzko eztabaidan ikuspegi desberdin bat" dokumentua.

4. 1992/6/6an Sortzenek "Euskal Eskola publiko berriaren aldeko mugimendua" izenez idatziriko lan-dokumentua.

5. 1993/5/15ean Ikastolen Elkarteak Arabako Armentian bildu ondoren, "Ikastolen Elkarteak ikastolei proposamena" izenez ezagutzera emandako agiria.

6. 1999/10/28an Sortzen Ikasbatuaz-eko kideek elkarrekin bateratutakoa. "Sortzen Ikasbatuaz hezkuntza sistema propioa. Euskal eskola publiko berria eraikitzeko proposamena" bezala ezagutua.

Bibliografiaren atalean, Paulo Iztuetak berak 13. orrialdean aurreratzen duen bezala, nahiz eta liburua 1983tik 1994ra doan aroan kokatu, duela gutxi argitaratu denez, orduko lanez kanpo, 1994tik 1999ra Euskal Herriko Unibertsitatean irakurritako hiru Doktorego Tesiren eta 1999an argitaraturiko liburu berri baten aipamenak jasotzen ditu; ikuspegi soziologiko, pedagogiko edo historikotik landutako jatorrizko ikerketak dira, hain zuzen ere.

Halaber egileak gardenki dio, jatorriz liburu honetako atal eta gehigarriak ez zirela aldi bereko argitalpen batetarako landu. Baina, esango nuke, eskola-liburuak eta abar kenduta, zaila izaten jarraitzen duela gai akademiko-tekniko-zientifiko luzeak argitara emateak. Beraz, zorionak Utriusque Vasconiae argitaletxe berria martxan jarri duten guztiei.

Eta, egia esan, nik ezin dut liburu-aipamen hau erabat bukatutzat eman, berriro ere Paulo Iztueta irakasleak ikerketa-lan idatzietan agertzen duen hizkuntzarekiko dohaina eta ikertu gaiekiko ausardia goraipatu gabe. Gainera, euskal hezkuntzari buruz euskara tekniko-zientifikoan liburu bat argitaratzeak oraindik duen sorkuntza-meritua ezagutu behar da, eta Euskal Unibertsitatea sortzeko saioan, irakasle eta ikasleei esker ezagutza arlo guztietan gertatzen ari den aupada zientifiko-linguistikoan sendoki eskuhartzea eskertu behar zaio.

M. Jaione Apalategi

el Hospital de "La Roseraie" dicho centro. A mí, desde un punto de vista médico, me habría gustado que la dedicación en el libro a todo lo relativo a las memorias médicas del Hospital hubiera sido más extensa; me quedo con ganas de conocer con más profundidad la actividad médica de aquellos exiliados que crearon un hospital para atender a soldados heridos y mutilados y a refugiados políticos vascos entre 1937 y 1940. Eso hubiera hecho más interesante el libro para los profesionales de la medicina pero es cierto que su interés para la población en general habría sido menor y no hay que olvidar que ésta era, precisamente, el objetivo de la publicación.

Existen otros hospitales creados por el Gobierno Vasco para atender a refugiados y gudaris que todavía no han sido estudiados y que recoge Arratibel en el artículo antes citado "Sanidad Vasca: Guerra Civil y exilio", como son los Hospitales Euskadi en Barcelona, Gernika en Canovellas (Barcelona), la Clínica Otxandiano en Barcelona, el Sanatorio antituberculoso de Montealegre situado cerca de Badalona, el Hospital de St. Cristau en el País Vasco francés, el Sanatorio antituberculoso Osasuna en Cambó y las clínicas de Saint Etienne y París. El estudio de la actividad médica desarrollada por el Gobierno Vasco en Cataluña y en el exilio es un campo que puede dar muchos frutos para mejorar el conocimiento del pasado médico vasco y este libro de Larronde es el primer paso.

Pedro Gorrotxategi Gorrotxategi



LODARES, Juan Ramón
Lengua y patria
Madrid : Taurus, 2002. - 214 or. - ISBN: 84-306-0453-7.

Egileak liburu honen bitartez helburu ideologiko garbia du: gaurko Espainiako hizkuntza-nazionalismo periferikoek jatorria tradizionalismo hispaniko-katolikoan dutela erakustea. Tradizionalismo hispano-katoliko honen oinarria Bibliaren interpretazioan ikus omen daiteke, Babel terminoaz zedarritu daitekeen mitoaren interpretazio oker edo interesatuan, hain zuzen. Bibliaren interpretazio honen arabera tradizionalismo hispano-katolikoak hizkuntza elementu sakratutzat hartu du, eta, halaber, hizkuntza, arraza, eta nazioa edo herria kontzeptuak elkartu egiten ei ditu. Ildo honetatik ezin daitezke Espainiako nazionalismoaren eta hizkuntzaren arteko harremanak ulertu erlijioaren eragina kontuan izan barik.

Lodaresen ustez nazionalismoa, beraz, ez litzateke Europa XIX mendean astindu zuen mugimendu erromantikoaren sehaskan sortua izango, katolizismo tradizionalare-

nean baino. Nazionalismo periferikoek hizkuntzen inguruan egiten dituzten aldarrikapenak ez dira planteamendu aurrerazaleetatik sortu, jarrera tradizional eta atzerazaleetatik baino.

Egilearentzat hizkuntza-aniztasuna ez da fenomeno naturala, gizakien bakartzearen eta komunikatzeko zailtasunaren ondorioa baino ("fundamentada en el aislamiento material de las gentes y en las dificultades para comunicarse"). Horrela, ez da jarrera negatiboa gizakien arteko ezberdintasunak edo komunikatzeko zailtasunak mugatzeko hizkuntza bera erabiltzera jotzeko asmoa.

Eta asmo horrek, hain zuzen, ekarri digu Espainian gaztelaniaren zabalkundea, Lodaresen ustez behintzat. Gaztelaniaren zabalkundea ez omen dagokio ezarketari, inguru tradiziozaleetan esaten den legez, gizarteak egin duen aurrerabideari baino. Ekonomiaren aurrerapenak, muga eta aduanen ezabaketak, giza-migrazioak, iraultza industrialak, langileriaren behar berriak, komunikazio eta garraioen garapenak, kanpo merkatalgoan eta politikan eskualdeek izan dituzten interes komunek eta, oro har, aurrera jotzeak ekarri dute gaztelaniaren zabalkundea. Gaztelania hizkuntza komuna bada, herritarren artean oso sustraituta dagoelako omen da, eta, batez ere, ekonomiaren, merkataritzaren eta enpresaren arloetan gaineko hizkuntzen gainetik ari delako.

Gaztelaniak duen hedapena, beraz, gizarteak aurrera egitearen ondorio hutsa baino ez da. Aurrerabideak ekarri omen duena, alegia. Beste hizkuntzen alde egiten bada, Espainiako herrien arteko ezberdintasunak aldarrikatzen badira, sektore lokal batzuentzat ekonomikoki interesgarria delako da.

Jarrera eta argudio honi eusteko, liburuan Espainiako azken bost edo sei mendeetan hizkuntzen inguruan boteretik zein gizartearen sektore ezberdinetatik aldarrikatutako iritziak biltzen ahalegindu da egilea: Amerikaren kolonizazioaren garaian erregetzatik ezarritako hizkuntza-irizpideak zein konkistatzaileek erabilitakoak, Errege Katolikoen eta Cisnerosen garaikoak, erromantizismoaren sasoikoak, Bigarren Errepublikan gobernuak zein gizaseme ospetsuek kaleratutakoak, eta abar. Edozelan ere, bildutako iritzi guzti-guztiak egileak erakutsi nahi digun hipotesiarekin bat datoz.

Argudio-lerroa argia da beti: euskararen, katalanaren eta galizieraren alde historian zehar egin diren aldarrikapen eta planteamendu guztiak, tradizioarekin askoz ere hobeto lot daitezkeela progresoarekin baino. Katolizismo tradizionalista izan da, gainera, guzti horren biltzailea. Katolizismo tradizionalista beti izan da hizkuntzen eta ezberdintasunen aldekoa, Biblia era horretan interpretatu duelako. Katolizismo tradizionalistari eta Elizari esker daukate gaur egun euskarak, galizierak eta katalanak duten balorazioa ("... ni el catalán ni el eusquera tendrían hoy la representación pública que tienen sin el respaldo que le brindaron sus movimientos nacionalcatólicos y la propia Iglesia como inspiradora suya").

Argigarria begitantzen zait Paraguayko guaranieraren egoera, Quebecen frantsesak duen hedapena eta Afrikako herrialde askotako eleaniztasuna zelan gertatu diren Lodaresek interpretatzeko duen era. Guztia ei da, neurri handi baten behintzat, erlijioari eta erlijio-gizonei esker: Paraguayn jesuitek XVItik XVIII mendera eraiki eta zuzendu zuten "Reino Jesuítico"an guaraniera hizkuntzari eutsi ziotelako esker; Quebecen bertara joandako kolonizatzaileek ingelesik ez zezaten ikasi Eliza Katolikoaren ekinari esker; Afrikakoa XIX mendeko erlijio-gizon ingeles eta frantsesek bertako hizkuntzak erabiltzeko hartutako erabakiari esker. Bestela, bere ustez, berezko garapena gertatuz, hizkuntza-batasuna izango litzateke eskualde horietako ezaugarria.

Espainiara itzuliz, hizkuntza-aniztasunaren galbidea XVIII mendean hasi zela uste du, giza-interesak erlijio-interesei gailentzen zaizkienean, alegia. Ordutik aurrera, Espainiako aurrerazale guztiek gaztelaniaren nagusitasuna eta egokitasuna aldarrikatu ei dute. XVIII mendean ilustratuek horrela aldarrikatu zuten eta Espainiako Erregetzak, bere aurreko joera aldatuta, hizkuntza-politika bateratua bultzatzen hasi zen, horretarako Elizari muzin egin bazion ere. XIX mendean erromantikoek, sozialistek, anarkistek eta aurrerazaleek orok gauza bera egin zuten. Lodaresen ustez, zenbat eta ezkertiarrago izan, orduan eta erradikalagoak ziren kontu honetan. Hona hemen berak jaso duen *La lucha de clases* aldizkariko puska bat: "Nosotros lo decimos como lo sentimos, dadas las circunstancias actuales, quisieramos un gobierno que no permitiese la literatura regionalista y que acabara con todos los dialectos y todas las lenguas diferentes de la nacional, que son causa de que los hombres de un país se miren como enemigos y no como hermanos (7-10-1899)". Bigarren Errepublikan ere gauza bera gertatu ei zen eta horrela adierazi zuten, besteak beste, Menéndez Pidal, Sánchez Albornoz, Jiménez de Asua eta beste hainbat liberal eta sozialistak. Horrela ikusten zuen Euskal Herriko Enrique de Francisco sozialistak euskararen irakaskuntza: "... es de un perjuicio notorio, que sólo serviría para robustecer a las fuezas reaccionarias de la extrema derecha...".

Euskararen, galizieraren eta katalanen alde, ostera, indar tradiziozaleak eta atzerakoiak baino ez ei ziren agertu aldi luze horretan. Hori guztia Lodaresek zenbait pentsalariren hitzak erakutsiz baiesten du, froga guztiak iritzi-mailan geratzen direlarik.

Frankismoak, nazional katolizismoaren ideologia berreskuratzean, hizkuntzaren, arrazaren eta herriaren arteko identifikazioa aldarrikatu zuen, baina oraingoan, gaztelaniaren nagusitasuna bultzatuz. Frankismoak gaztelaniaren alde egin bazuen ere, oker egin omen zuen, horretarako ideologia tradizionalistan oinarritu zen eta. Horretan, bada, frankismoa mugimendu nazionalistekin elkar daiteke, guztien ideologia tradizionalismo katoliko atzerakoian oinarritzen baita.

Alabaina, zer gertatu da frankismoaren ostean? Bada, indar aurrerazaleek eten egin dutela hizkuntza-kontuan ildo ideologikoa aurreko pentsalari aurrerazaleekin. Zergatik? Besteak beste, erlijioa sartu delako tartean: "Es un hecho bien conocido que la represión franquista dejó a las tradicionales organizaciones obreras en la inopia (sic). De modo que durante toda la dictadura, pero especialmente en los años cincuenta y sesenta, las organizaciones católicas cumplieron las funciones típicas de un Movimiento Obrero agotado". Harrigarria bada ere, frankismoak langileen erakundeak "inopia" delakoan utzi zituela dio. Halere, harantzago jo behar dugu Lodaresen argumentazioan: gaur ezkerretik edo progresoa defendatzen duen indarren batetik euskararen, galizieraren eta katalanaren alde egiten bada, erlijioak utzitako lorratza bezala ulertu behar ei dugu.

Eta horixe da, nire ustez behintzat, Lodaresen helburu nagusia: gaur egungo ideologia aurrerazalea berbideratzea. Horixe da bere aldarrikapena: liberalismotik zein marxismotik (Engels, Lenin) hizkuntza-aniztasuna beti ikusi izan dela herritarren eta langileen askatasunaren aurkako traba bezala, eta, bide batez, askatasunaren aurkako oztopo legez. Gaur egungo hainbat erakunde aurrerazalek, beraz, beren ideologia hizkuntza-kontuetan aldatu beharko lukete, iturrietara joz. Horrela amaitzen du "Cambiar de rumbo" atala (177-181): "Se da, por tanto, en España la circunstancia de que corrientes de opinión u organizaciones que se consideran progresistas, no sólo no tienen propuestas originales en este asunto, como podían tenerlas antes de la dictadura, sino que –pretendiendo oponerse a lo que en su criterio consideran liberalismo– avalan, en distinto grado, criterios conservadores".

Hizkuntza-aniztasunari eustea, beraz, atzerakoia izatea da. Aurrerabideak hizkuntza-batasuna dakar. Gizakiok hizkuntza berberaz elkar ulertzea naturala da. Gizakion askatasuna eta aurrerabide nahi badugu, hizkuntza-batasunerantz jo beharko dugu. Alabaina, nahikoa litzateke gauzak bere horretan uztea, berezko indarrek horretara baikaramatzate.

Ezberdintasunen alde eta hizkuntza-aniztasunaren alde agertzeak, ostera, ezkutuko interesak defendatzea du helburu, talde pribilegiatu baten interesak, alegia. Horrela, Petras pentsalari marxistaren iritzia ere badakar harira. Petrasen ustez Katalunyan, esaterako, jatorri espainiarreko langilegoaren ondorengoei katalanez hezkuntza ezartzea, langilego honen hustiakuntza betikotzeko asmoaren isla baino ez da. Hizkuntza ezarriz euren askatasuna eta garatzeko gaitasuna oztopatu baino ez da egiten, hizkuntza-eskubideak urratzeaz gain, noski. Hizkuntza-politika honekin, Lodaresen eta Petrasen ustez, gutxiengo pribilegiatuaren interesei eutsi nahi zaie.

Bide batez, liburuaren amaieran ohar bat Europar Batasunarentzat: "... y todavía pueden fortalecerse en la Unión Europea corrientes de opinión inclinadas a formar sociedades homogéneas hechas por segregación de comunidades lingüísticas mayores", eta "... la Declaración de Estrasburgo, inspirada por el Foro de Ermua, nos alerta sobre el hecho de que el neonazismo esté infintrándose en aquellas minorías étnicas, lingüísticas o territoriales de la Unión Europea inclinadas a formar sociedades homogéneas no por agregación de partes, sino por segregación, uniformándolas en la lengua y exaltando sus particularidades para evitar que se mezclen con comunidades mayores". Baiestapen hauek Hitler eta nazismoa Babeleko mitoarekin lotu ondoren, noski.

Badira liburu honetan interesgarriak diren beste hainbat kontu, hala nola, zelan identifikatzen duen hizkuntza-aniztasunaren alde izatea eta nazionalismoa, zelan bat egiten duen hizkuntza-aniztasunaren alde egotea eta talde txiki pribilegiatuen interes ekonomikoen alde egotea, zelan direnak eta ez direnak jartzen dituen ideologia nazionalistaren ahoan (esaterako, guztiak oinarritzen omen dira besteekiko mesprezuan), edo zelan interpretatzen dituen euskararen, galizieraren eta katalanaren historian gertatu diren hainbat fenomeno. Alabaina, horretarako liburura jo beharko du irakurleak, hemen eskaini zaigun tokia bukatu da eta.

Andoni Barreña Agirrebeitia



MONTEANO SORBET, Peio Joseba
La ira de Dios. Los Navarros en la era de la peste (1348-1723)
Iruñea : Pamiela, 2002. - 317 p. - Ensayo y Testimonio 49. - ISBN: 84-7681-353-8.

Après avoir donné en 1999 une excellente édition de sa thèse *Los Navarros ante el hambre, la peste, la guerra y la fiscalidad*, Peio Monteano publie à présent un beau

variadas manifestaciones del teatro popular (el teatro charivárico, el carnavalesco; las "abbadies" de jóvenes; la difusión de repertorios a través de buhoneros y almanaques; la inexistencia de una barrera cultural en el Pirineo, que lo convierte en un "magnífico terreno para una investigación comparatista"). Desplat se aproxima más a la orientación que Roger Chartier ha dado en los últimos años a los estudios sobre la cultura popular. De ahí que, desde este punto de vista, sea mucho más interesante hablar de cultura**s** de elite y de cultura**s** populares; de "apropiación" y de bifocalización entre ambas, antes que de imposición; de poner en cuarentena determinadas periodizaciones (¿acaso no hubo un importante fenómeno de aculturación en el siglo XIII, apuntado por Le Goff y Schmitt? ¿no sería más correcto, a pesar de Burke y de la historiografía anglosajona, situar la ruptura entre ambas culturas en el siglo XIX, más que en los siglos XVI y XVII?). El debate abierto hace ya varias décadas por autores como Burke, Le Goff, Muchembled, Ginzburg, Davis, y un largo etcétera, se muestra en parte de las páginas de este libro, muy viva, al mismo tiempo que necesitada de una casi inexistente investigación de archivo, al menos en España.

A lo largo de la obra son otros muchos los temas que se abordan, al menos someramente: las relaciones entre la magia y la ciencia, la fiesta y la ceremonia pública, la diferente percepción del espacio y del tiempo. Es cierto que algunas de las colaboraciones carecen de bibliografía; que otras adolecen de una estructura endeble; que se echa en falta en alguna de ellas una investigación de primera mano; que al libro le falta, como suele ocurrir con las obras colectivas, un hilo conductor claro. Es verdad también que una revisión detenida del texto hubiera evitado errores ortográficos graves. Pero estimo que fundamentalmente hay que valorar el esfuerzo de síntesis que la mayor parte de los autores han aportado a las páginas de este libro, y el impulso que con sus contribuciones han dado al estudio de un tema complejo, infravalorado por algunos, pero que esconde sin duda, una de las vías de investigación más atrayentes de los últimos años.

Jesús M.ª Usunáriz Garayoa

HAGÈGE, Claude
Halte à la mort des langues
Paris : Odlie Jacob, 2000. - 402 or. ; 22 cm. - ISBN: 2-7381-0897-0.
(Gaztelerako argitarapena: Claude Hagège: *No a la muerte de las lenguas*, Barcelona : Paidós, cop. 2002)

*Halte à la mort des langue*s liburua 2000. urtean argitaratu zen. Egileak sarreran dioen moduan, helburua, gizakion kultura aniztasuna gal ez dadin hizkuntza askoren egoera larriaren kontzientzia gizartean zabaltzea da. Hizkuntza, kulturaren adierazle garrantzizkoena dela aitortuz, hizkuntzen galerak gizateriaren kultura erabat txirotuko duela azpimarratzen du. Horregatik, larritzeko modukoa da egun hitz egiten diren 5.000 hizkuntzetatik, erdia gutxienik mende honetan hilko dela jakitea, egungo joera aldatzen ez bada behintzat.

Liburua, beraz, ez da ikerketa zehatz baten emaitza. Alabaina, urte askotako ikerketa-lanaren eta esperientzia handiaren ondorioz eginiko gogoeta, sorturiko kezka, eta gaia gizarteratzearen beharrak bultzatuta, publiko zabalari zuzenduriko lana da.

Hagège Tunisian jaio zen inguru eleanitz batean, eta egun, Pariseko *Collège de France*-ko ikertzailea eta irakaslea da. Oso gaztetatik hizkuntza askorekin harremana izanik, dozena bat hizkuntzatan hitz egiteko gai da, eta bere ikerketa-lanak hizkuntzalaritza arlo desberdinetan egin izan ditu: hizkuntzalaritza orokorrean, tipologian, hizkuntzalaritza historikoan –batez ere frantsesari loturikoa–, eta soziolinguistika arloan. Azken urte hauetan, bere lanak hizkuntza aniztasunaren egoera larriaren berri ematera bideratu ditu, bereziki.

Liburua argitaratu zen garaian, munduko hizkuntzen egoera kezkagarriaz zenbait ikertzaileren lanak argitaratzen hasi ziren. Akaso, mugarria Kraussen 92ko "The world's languages in crisis" artikulua aipa daiteke (*Language,* 68, 1, 4-10), ez gaia kaleratzen lehena izan zelako, baizik eta, munduko hizkuntzen egoera, era oso dramatikoan, eta datu zehatzak aipatuz laburbildu zuelako. Harrez gero, gaia orokorrean aztertu duten ikertzaileak asko dira, baina azpimarra daitezke Würm, Crystal, Nettle, Romaine edo Skutnabb-Kangas-en lanak, besteak beste. Hurbilago, ezin aipatu gabe utzi Morenok edo Junyent-ek eginikoak.

Halte à la mort des langues liburuak, sarrera orokorraz gain, hiru atal ditu, eta eranskin moduan ematen den erreferentzia bibliografikoa, kontzeptu eta hizkuntza indizea, aipaturiko pertsona zerrenda eta eduki orokorraren taula zehatz batekin osatzen da.

Lehenengo atalean hizkuntzak eta bizitza lotzen dira, gizatasunaren ezaugarri nagusi modura eta giza taldeen historiaren gordailu ezkutu eta agerikoaren modura. Interes handia duen gaia da, hain zuzen, bizitza naturalaren metaforarena.

Gai hau ez da orain-oraingoa, eta XIX. mendetik zabaldu den joera bat ekartzen du gogora, naturalismoaren garaitik hona, hizkuntza izaki bizidun modura ulertzeko joera, alegia. Interesgarria da egiten duen ibilbide historiko horren berrikustea, Schleicher-etik hasi eta Darwin-ekin jarraituz, hizkuntzek izaki bizidunekin dituzten antzekotasunak eta, batez ere, desberdintasunak agerian jartzeko. Izan ere, metafora irudikor horren erabilera ontzen badu ere, hizkuntza heriotzaren ezinbestekotasunetik urrundu nahi du; hizkuntzak ez dira halabeharrez hiltzen, baizik eta dagokien erkidegoetako hiztunek beste hizkuntza bat erabiltzea erabakitzen dutelako. Beste arazo bat da erabaki horren zergatia aztertzea –hain zuzen, geroxeago egiten duena– edo hiztun guztien desagertze fisikoaren kasua. Beraz, hizkuntzak zenbaitetan berpiztu ere egin daitezke. Ingurumen horretan, oso egokia deritzot Saussuren *langue/parole* kontzeptuen bereizketa ospetsua harira ekartzea, momentuzko erabilera murritzak ez duela derrigorrez hizkuntzaren betirako desagertzea esan nahi azpimarratzeko.

Liburuaren bigarren atalak lanaren zati nagusia hartzen du, bai tamainari dagokionez eta baita edukiaren aldetik ere. Hasteko, hizkuntzaren heriotza zer den zehaztu nahi da. Hizkuntza klasiko eta ezagunen adibideak ematen dira, bilakaera naturalaren bitartez hizkuntza desberdinak bihurtu direnen zenbait kasu, eta mugimendu demografiko eta politikoen ondorioz galdutakoak, hain zuzen. Jada, liburuko gai nagusiak agertzen joango dira: hizkuntzaren ospea eta estatusa –ekonomikoa dela, kulturala dela–, elitearen eta hiztun gehiengoaren hizkuntzen bereizketa, eta abar.

Hau guztia lotzen da liburuaren gunea den *Le bataillon des causes* izenburupeko gaiarekin. Hizkuntzen heriotzaren arrazoi nagusiak lerratzen dira: arrazoi fisikoak, eko-

nomikoak, sozialak, politikoak eta ospearekin zer ikusia dutenak. Gai guztiak elkarloturik, izan ere, berak dioen modura, arrazoiak oso gutxitan izaten baitira bakarrak edo sinpleak:

Genozidioak eta masakreak, populazio indigenen aurkako eraso bortitzak eta biziraupenerako norberaren hizkuntza alde batera utzi beharraren sentimendua; ekonomikoki indartsuagoak diren erkidegoen hizkuntzen eragina, edota migrazio mugimenduen ondorioz gutxiengoa bilakatzea norberaren herrian; tradiziozko ohiturak galdu izana, urbanizazioa edo bizimodu ekonomikoa aldatzea; estatuen eragin zuzena, hizkuntza bat –edo batzuen– ofizialtasuna aldarrikatuz besteak erabat baztertzerakoan; armada, eskola eta komunikabideen eragina. Gai zerrenda luzea benetan, baina irakurleari modu argian eta adibide oso interesgarriekin –eta kasu askotan ezezagunekin–, emanda.

Hagègek azpimarratu nahi du hizkuntza boteretsu baten aurrean dauden hiztunek arrazoi erabat indartsuak izan ohi dituztela eurena uzteko. Baina, identitatea eta hizkuntza erabat lotzen ditu. Hau da, zalantzan jartzen du hizkuntza galduz gero identitatea gorde daitekeelako ideia, nahiz eta hiztunek, egoera gogorretan, gehiengoan integratuz identitatea modu eraginkorragoan gordeko dutelako argudioa ematen duten. Gaia oso korapilatsua izanik, ez dago gaizki mahai gainean jartzea.

Horrekin guztiarekin, egoeraren irudi erabat heterogeneoa jasotzen du irakurleak, baina hizkuntzen arteko gatazka bortitza mundu osoan hedaturik dagoen arazoa dela ohartzen da. Laburpen modura, geografikoki sailkatzen dira datu batzuk –aukeran irudi laburtxoa, baina eskertzen dena– irakurleak, gai zerrenda luze horretan, ordena pixka bat egiteko beharra duelako. Horrela, garai, leku eta arazo desberdinetako itsasoan, egungo egoerari buruzko ideia bat egiteko moduan da.

Aipaturiko arazo horien artean leku berezia hartzen du ingelesaren nagusitasunak eta beste hizkuntzen aurkako eraso bortitzak. Botere ekonomiko eta politikoaren adierazle modura aurkeztuz, hizkuntzaz kanpo jartzen da gaia. Hala ere, beste hizkuntza boteretsu batzuk ere, zenbait ingurutan, ingelesa bezain erasokorrak direla esan daitekeela dirudi. Frantsesa, errusiera, gaztelania eta beste batzuei buruz hitz egiten bada ere, liburuan nolabaiteko desoreka dagoela iruditzen zait.

Liburuaren azken atala, hizkuntzaren berpizkundeari eskaintzen zaio. Adibide adierazgarri moduan hebraieraren kasua aztertzen da. Adibide interesgarria benetan, baina akaso, horrelako liburuan gehiegizko xehetasunez emanikoa nire irudirako, batez ere, ondoren ematen diren adibideen luzera eta interesgarritasuna kontuan hartuz.

Hizkuntzen galeraren aurrean hizkuntza gordetzearen aldeko faktoreak aipatzen dira: identitatea, taldearen kohesio familiarra –edota erlijiosoa– eta, batez ere, hiztunen beraien inplikazio zuzena. Hizkuntzak biziberritzeko eskolaren betebeharra, hizkuntzen ofizialtasuna aldarrikatu beharra eta hizkuntzalarien inplikazioa eskatzen da. Akaso, jarrera zehatzago bat eskatu geniezaioke egileari. Egia da hiztunengan dagoela hizkuntzak errekuperatzeko kakoa, baina berak ondo adierazten duen moduan, gauzak ez dira bere kasa gertatu, eta nolabaiteko erantzukizuna eskatzeko moduan ere egon gintezke. Hizkuntzen galera aztertzen dugun bakoitzean arazo ekonomiko eta politikoekin topo egiten badugu, konponbideak proposatzerakoan ere, arazo horiei erantzuna ematen hasi behar genieke. Azken finean, giza eskubideen errespetuaren eta urraketaren aurrean gaude eta.

Liburuaren hasieran esaten den moduan *parole*-aren erabilera murritza den garaietan ere, *langue*-ren indarberritzea hiztunengan dagoen ahalmena da. Baina, hiz-

kuntza baten galera ez dagokio soilik hiztunari, gizateria osoari baizik, eta egia bada norberaren hizkuntza ez galtzearen ardura zuzena hiztunarena dela, ardura historikoa denena izan behar luke. Batez ere, tokian tokiko ardurei dagokienean.

Era guztietan, oso gomendagarria den liburua, inondik ere.

Belen Uranga Arakistain

INVITACIÓN a la Antropología Urbana
[José Ignacio Homobono, ed. lit.]. - En: Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía / Eusko Ikaskuntza. - Donostia. - N. 19 (2000). - 253 p. - ISBN: 84-8419-958-4, ISSN: 1137-439X.

El presente monográfico de *Zainak* se inspira en las *I Jornadas de Antropología Urbana* organizadas por la Sección de Antropología-Etnografía de Eusko Ikaskuntza. Contiene diez artículos de diferentes autores de los cuales solamente dos, el de Teresa del Valle y el de los Arqueólogos de la Sociedad de Ciencias de Aranzadi, corresponden a dos de las ponencias que tuvieron lugar.

La antropología urbana trata de realidades en la ciudad o de lo urbano, concepto que hace referencia a las características específicas de las sociedades posindustriales, utilizando una perspectiva complejizante, es decir focalizada en lo relacional, los cambios, lo fluido y en la interconexión de alcance global de muchas de las realidades que se analizan. El monográfico no pretende ser una recopilación exhaustiva de la actividad investigadora dentro de la tradición urbana de la antropología, sino, como su título indica, trata de invitar a la reflexión dentro de un campo todavía incipiente, especialmente en lo que atañe a la producción dentro del marco del estado español.

Los trabajos contemplan una perspectiva inter o transdisciplinar que equilibra datos micro y macro, en una suerte de tendencia hacia lo que se ha denominado etnografía multilocal, necesaria al tratar realidades de tan amplio espectro como lo son las que constituyen las sociedades urbanas contemporáneas. El hilo conductor que atraviesa los trabajos es el énfasis puesto sobre el cambio y la desestructuración que diversos procesos, eminentemente contemporáneos aunque históricamente construidos, han provocado en la sociedad, así por ejemplo los flujos migratorios extracomunitarios, el asociacionismo, la sociedad del trabajo, la resignificación de los cascos históricos o los nacionalismos neotradicionalistas se erigen como agentes de cambio, renovación y como fuentes de conflicto. A través de estas variables se va conformando una perspectiva complejizante propia de la antropología urbana presente en casi todos los artículos del presente monográfico.

Un primer apartado lo ocupa el artículo de Ignacio Homobono *Itinerarios teóricos, tradiciones nacionales y ámbitos temáticos en la exploración de lo urbano*. Éste constituye un análisis compacto y completo del estado de la cuestión dentro de la antropo-

ORTOGRAFIA GERRAK TXEKIAN

Linguistic authority, language ideology, and metaphor : the Czech orthography wars / by Neil Bermel. — Berlin ; New York : Mouton de Gruyter, 2007 XII, 369 orr. ; 24 cm. — (Language, power and social process ; 17)

Zenbait girotan erran komuna da hizkuntza komunikazio-tresna hutsa dela eta, beraz, politikaren esparrutik erabat kanpo egon beharko lukeela. Baieztapen bera modu gordinagoan agertzen da batzuetan, alegia, hizkuntza berez *garbi* den artefaktua da eta, ondorioz, politikarien esku *zikinetatik* babestu beharra dago, *askatasunaren* eremuan kokatuz. Baina planteamendu horren aingerukeria inon baino nabarmenagoa da aldian-aldian hizkuntza guztietan pizten diren ortografia-gerretan. Adibidez, Txekian.

Aipagai dugun liburua Txekian berriki gertatuko gerra horietako baten kronika eta analisi zehatza da. Aski da aurkibideari begiratu azkar bat ematea hizkuntzaren gaineko kontuak oso kontu konplexuak direla konturatzeko, eragile asko inplikatzen dutenak: batetik filologo eta hizkuntzalariak, baina bestetik herri-aginteak eta, jakina, bien artean gure gizartean hain garrantzitsuak diren masa-hedabideak; beste eragile esanguratsu batzuk ere ezin ahaztu: eskola-komunitatea eta, honi estuki lotuta, argitalpen-mundua. Eta abar. Bestalde, multzo horietako bakoitza hainbat azpimultzo eta taldetan banatua egon ohi da, bakoitza bere programa propioaz *armatua* eta, sarri, elkarren arteko gerra gupidagabean sartuta, sarri baino sarriagotan hizkuntzaz kanpoko interesek piztu eta esplikatzen dituzten gerretan. Baina gertakari oro bizirik den gizarte batean gertatzen da, kasu honetan komunismoaren erorialdiaren ondorengo Txekian, eta hizkuntzak gizarte osoa zeharkatzen du, gertakari guztiak. Zinez gauza konplexua da hizkuntza.

Ildo honetan liburuaren hasiera esanguratsua da zinez:

> On 17 July 1994, while his boss was on holiday, a junior minister in the Czech Ministry of Education announced that he was rescinding the approval certificate for the new *Rules of Czech Orthography.* At a stroke, all the textbooks that had been painstakingly re-edited, re-typeset, and reissued over the last year were rendered invalid. Publishers threantened legal action, and schools that had been purchasing them and retraining their teachers cried foul. The Minister cut short his holiday and rushed back to Prague. For several weeks ito looked unclear whether pupils across the Czech Republic would have books to learn from that autum, and newspapers carried daily updates on the crisis. With chaos looming across the education sector, a compromise was hastily hammered out between the supporters and detractors of the Rules, and a revision was rushed into print, arriving at schools only days before the beginning ot term in September. (1. or.)

Gertakari hori krisialdiaren gailurra izan zen, baina liburuan zehar zehatz-mehatz eta ñabardura ugariz dokumentatzen den bezala, funtsean txekieraren historia gorabeheratsuan episodio bat gehiago da, besterik ez.

Dohain asko ditu liburu honek. Besteak beste, ikerketa akademiko guztiz zehatz eta argia da baina, bestetik, uko egiten dio akademizismo antzu eta urrun batean babesteari; aitzitik, gertakarien deskribapenarekin batera iritzi garbiak eskaintzen ditu, beti ontzat eman ezin direnak, baina bai gehiengehienetan, iruzkingile apal honen ustez. Gainera, oso alor desberdinak jorratzen ditu. Adibidez, lehen kapitulua kontzeptuak eta terminologoa argitzeko ahalegin eskerga bat da, egindako aukerak azalduz eta hizkuntza ugari aipatzen den testuinguru batean kokatuz; berak bakarrik liburuaren irakurketa justifikatuko luke. Hurrengo hiru kapituluetan txekieraren historia sozial bat marrazten digu, biziki interesgarria euskaldunontzat; ez dezagun ahantz nazionalismo kulturala, Euskal Herrian edo Katalunia bezalako lekuetan gaur egun praktikatzen den gisan, funtsean txekiarren asmakizun bat izan zela (eta ez alemanena, normalki esaten den bezala) eta nazionalismo mota horretan hizkuntza elementu nagusia izateaz gain, politika-asmo horiek, gainera, eragin erabakigarria izan dutela eta dutela hizkuntzaren historian, besteak beste batasunaren eta honek dakarren kodifikazioaren (normatibizazioaren) afera gatazkatsuan. Ondoren, bosgarren kapituluan krisia bera aztertzen du, gertakarien segimendu zehatza eginez. Hurrengo hiru kapituluetan azterketa horrekin segitzen du, beste zenbait eremutatik abiatuta. Azken kapituluan ondorioak aurkezten dira.

Bada gai biziki zirraragarririk, adibidez, erregimen komunistarekin eta haren erorketarekin izandako harreman bihurria; halaber, bitxia eta jakingarria da ikustea erregimenaren ideologia ofizialak izan zuen eragina unibertsitarioen artean, bereziki hizkuntzalaritzaren esparruko zenbait teoria (*Pragako Eskolako Funtzionalismoa*) sustatzeko orduan, eta horien gainbehera komunismoa erori zenean; edo hizkuntzapurismoak txekiar gizartean lortu duen arrakasta izugarria, non eta esan daitekeen ia-ia bi estandar desberdin direla gizartean naturaltasun osoz erabiltzen direnak: bata informala, ahozkoa, aski zabarra; baina bestea, idaztekoa eta testuinguru formaletan erabiltzekoa, izugarri garbizalea; bien arteko aldea hain da handia ezen txekiar umeek ordu asko ematen omen duten eskolan ikasten eguneroko bizitzan esaten dituzten hainbat hitz gero ez direla idazten, haien kideko *garbiak* baizik (horretara goaz geu ere?). Bada kontu aipagarri gehiagorik, baina bego hemen.

Ematen duen informazioa eta ikuspuntuak ugariak eta desberdinak izan arren, bada sakoneko gai bat etengabe azaleratzen dena; izenburuan bertan ageri zaigu: nork du hizkuntza bat arautzeko autoritatea? Ez da erraz konpontzeko moduko kontua: gorago azpimarratu dugun legez, zinez ugariak dira jokoan sartzen diren faktoreak; arazo nagusia, hain juxtu ere, eragile horietako bat isolatu nahi izatea da, ardura nagusia (bakarra, sarri) hari egotziz; hurrengo pausoa eragile zehatz horren gainean (direla hizkuntzalariak, direla politikariak, direla kazetariak...) erruak pilatzea izaten da, hots, borrokak areagotzera baino ez daraman bidea. Zeren gezurra ematen du ikusteak txekiarrek beren ortografia eztabaidatzeko erabiltzen duten kar saindua... ikusiko ez bagenitu oso antzeko kasuak Espainian, Holandan, Frantzian, Norvegian, Azerbaijanen, Galizian edo Euskal Herrian bertan. Ez, auzoan ez dabiltza txakurrak zapatekin.

Pruden Gartzia

LIBURU-IRUZKINA

AIZPURU MURUA, Mikel: *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan. Hasierako urteak 1973-1984.* UEU, Bilbo, 2003

Jacinto Iturbe

Kimika Fisikoa Saila
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea
qfpitbaj@lg.ehu.es

Liburu hau historia-liburu bat da, tituluak zedarrituriko erakundeari eta denbora-tarteari buruzkoa. Eta historia hori idazteko egilea bada nor: Historian doktorea eta Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) kide eta zuzendari-ohia. Eta nire uste apalean ondo egin du. Zeren, liburu hau egiterakoan, hasierako urteetako lekuko esanguratsuenen oroitzapenak bildu baititu, eta, historialariek egin behar duten moduan, garaiko idatzizko materialak sakon arakatu baititu.

Idatzizko material hau begiratzerakoan, agian, irakurleren bati harrigarri edo deigarri suertatuko zaio liburuko iturri askoan agertzen den aurreikuspuntu doktrinal politiko-militantea. Ez da ahaztu behar UEU denbora-tarte jakin batean sortu eta hedatu zela, Euskal Herriko historian gontza izan zen denbora-tartean hain zuzen, arinak edo leunak ez ziren denboretan. Eta historialariak egoera hori islatu egin behar du, liburuan islatzen den moduan.

EKAIAko irakurlearentzat liburu honek ekarri dakartza interesgarri diren hainbat datu eta zehaztapen euskaraz egindako Zientziaren eta Teknologiaren historiaren gainean. Aipatzekoa da UEUko hasierako urte haiek izan zirela Zientziaz eta Teknologiaz (eta beste hainbat diziplina zientifikoz ere) euskaraz sistematikoki eta zabalki idatzi ziren lehen denborak. Nagusiki, hein handi batean, urte haiek zaletuen urteak izan ziren. Ideia bat zabaldu zen: euskaldunak bere bizitzaren arlo

guztietan euskaraz aritu behar ziren; ondorioz, euskaldunek, izen hori merezi bazuten, ezin zuten Zientzia eta Teknologia beren mundutik kanpo utzi. Eta horrela, euskaldun batzuk hainbat ikastegitan erdaraz ikasitakoak beste euskaldun batzuei ahoz eta idatziz kontatzen zizkieten, hizkuntza (ahozkoa eta idatzia) bateratu baten oinarriak finkatuz.

Puntu hau garrantzitsua da zeren, hasierako urte haietan, Unibertsitatearen ideia eta goi-irakaskuntzaren ideia oso lotuta baitzeuden, ia sinonimo izateraino: beharrezkoa zen frogatzea euskara unibertsitate-irakaskuntzarako tresna-hizkuntza zela, aurretik edo aldi berean ikastoletan frogabidean zegoen moduan. Ideia honekin estekatuta, goi-irakaskuntzarako material idatziaren sorkuntza bultzatu zuen UEUk, nagusiki liburuak. Horrela urte haietan argitaratu ziren liburuen zerrenda UEUk oraintsu sortutako eta kudeatutako www.inguma.org helbidean aurki daitezke, eta lagin moduan 1978-1984 tartea hartuta, ia ziur liburu guztiak ez direla bildu, baina eskuragarri daudenei gainbegirada bat eginez ikus dezakegu ehun bat liburu argitaratu zirela, eta horietatik laurogei bat inguru zientzia eta teknologiaren alorrekoak direla, besteak ezagutzako beste arloetan sakabanatutako izenburuak izanik.

Zergatik desoreka nabari hori? Liburu honetan ikus daiteke erantzuna 1973.eko ekitaldiez diharduenean: «…zientzia-gaiekin lotutakoek (mintegiek) azaldu zuten heldutasun handiena … Elhuyar elkarteak eta Leioako Zientzia Fakultateako (*sic*) EKTk erakutsi zuten elkarlanerako gaitasunik handiena» (35. orr.).

Eta ideia hau behin eta berriro agertzen da liburuan zehar:

1974.eko ekitaldiez: «Zientzia Saila izan zen, denen esanetan, hobekien antolatu zuena bere ikastaroa, Bilboko, Donostiako eta Iparraldeko taldeak …» (41. orr.).

1978.eko ekitaldiez: «Zientzia-arloak, …, oso maila egokia erakutsi zuen» (119. orr.).

Urte horietan UEUn egindako lanak Unibertsitate ofizialera ekarriko zuen ondorioa: «…zientzia eta teknika izan ziren (euskara) Unibertsitatean sartu zutena» (102. orr.). Hori izan zen Euskal Herriko Unibertsitatean gaur egun dauden euskal lerroen hasiera. Alde horretatik, esan daiteke UEUk bere helburuetako bat bete duela, hau da, Unibertsitateak euskara baliatzea bere irakaskuntzako zereginetan.

Liburu honetan egiten denari jarraiki, aipatu beharrekoa da UEU Zientziaren eta Teknologiaren arloan beste erakunde batzuekin aritu zela lankidetzan: Elhuyar, Jakin, UZEI,…

Baina liburuan ez dira bakarrik Zientziaren eta Teknologiaren arloan egindakoak aipatzen. Aitzitik, hauek atal txiki bat baizik ez dute betetzen, liburuan dagoen informazioaren barruan murgilduta. Liburuaren helburua ez da Zientziaren eta Teknologiaren historia egitea —hori, nik dakidanik, egiteko dago—. Berez, UEUk izan zuen kokapena azaldu nahi du egileak testuinguru soziopo-

litiko jakin bati lotuta. Era berean, agerian jarri nahi du Aizpuruk liburuaren izenburuan aipatzen dituen hamabi urte horietan UEUk izan duen bilakaera, gizartean jasandako aldaketa ugarien artean kokatua.

UEUren lana handia izan zen. Liburuaren egileak iragartzen duen irakasleen zerrenda osoak (35. orr., 49. oharra) argitaratzen direnean konturatuko gara parte hartu zuen jendearen kopuruaz eta kalitateaz.

Bukatzeko, liburu hau gustatuko zaio Euskal Herriaren historia gustuko duenari; gustatuko zaio gazte jendeari, orduko garaiak ezagutzeko. Izan ere hogeitaka urte baino gehiago igaro ez badira ere, askorentzat dinosauroen garaikoak diren pasadizoak izan daitezke hemen aipatzen direnak. Gustatuko zaie azkenean UEUren hasierako urteetan ibili zirenei, azken batean UEU parte hartzaile guztien artean egin den proiektua izan baita.

Amorrortu E., Ortega A., Idiazabal I. & Barreña A., 2009. Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak

Naiara Berasategi Sancho
Euskal Herriko Unibertsitatea, Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila
naiara.berasategi@ehu.es

Sarrera-data: 2011-04-30 | Onartze-data: 2011-07-30

Amarauna Ikerketa taldeko Esti Amorrotu, Ane Ortega, Itziar Idizabal eta Andoni Barreñak, hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremanetako ikerketetan esperientzia zabala dutenak, euskararen normalkuntzarako oso interesgarria den liburua aurkezten digute, hizkuntza politika sailburuordetzatik 2006an egindako eskaerari entzunez eta hartarako emandako diru laguntzari esker.

Liburu honetan, sakon aztertzen da hizkuntzaren normalkuntzaren esparruan garrantzia nagusia duen gaia, hizkuntzekiko jarrerak eta aurreiritziak. Ikerketa honen helburu nagusia da, batez ere arrakastaz euskaldundu ez diren euskal herritarren jarrerak eta aurreiritziak aztertzea. Honela, elebitasunerako mesedegarri diren aurreiritziak arakatzen dira, eta jarrerotan zein faktorek eragiten duten antzematen dira. Helburu hau betetzeko osagarriak diren bi metodologia nagusi erabiltzen dira; kualitatiboa eta kuantitatiboa. Kualitatiboari dagokionez, hainbat eztabaida talde egin dira, inguru soziolinguistikoaren arabera sailkatuak, eta bertan 47 lagunek parte hartu dute. Helburua batez ere euskaldundu ez direnen

jarrerak aztertzea izan den arren, eztabaidak aberatsagoak izateko iritziemaile euskaldunen jarrerez ere baliatu dira. Kuantitatiboari dagokionez, galdesorta bat diseinatu da eta hau ikerketa kualitatibotik ateratako datu eta ideietan oinarritu da. Honetarako, euskaldunak ez diren EAEko 18-55 urte bitarteko biztanleria osoa aztertu da. Era horretan, parte hartzaileen iritzi eta hausnarketak jasotzeaz gain, horien maiztasuna nolakoa den aztertu da. Aipatzekoa eta nabarmentzekoa da, ikerketa kuantitatiboa ikerketa kualitatiboko ideia eta datuetan oinarrituta egoteak eta metodologia biak uztartzeak, sakontasun eta zehaztasun handia eskaintzen dizkiola egindako lanari.

Kualitatiboari dagokionez, hainbat eztabaida talde egin dira, inguru soziolinguistikoaren arabera sailkatuak, eta bertan 47 lagunek parte hartu dute.

Liburu hau zazpi ataletan banatuta dago. Lehenengo bostek ikerketa kualitatiboa biltzen dute, eta seigarrenak, ikerketa kuantitatiboa. Azkenik, zazpigarren kapituluak liburu osoaren ondorioak biltzen ditu eta hausnarketarako proposamen bat eskaintzen du. Lehenengo kapituluan, ikerketaren nondik norakoak biltzen dira: helburuak, datuak batzeko eta aztertzeko metodologia; lagineko partaideen berri; metodologia-markoaren eraginkortasuna; eta liburua irakurtzeko argibideak. Bigarren kapituluan, euskararekiko jarreren izaerari buruzko pertzepzioen berri ematen da: euskararen balio instrumental, integratzaile eta ideologiari buruzkoak. Atal honetan, motibazioak aztertzerakoan berritzailea den sailkapena egiten da, ikerketa lerro tradizionalaren dikotomiaz (instrumentala/integratzailea) gain beste bide batzuk arakatzen dira. Honela, barruko eta kanpoko motibazioak kontuan hartzen dituen ardatz berria erabili da, balio instrumental eta integratzailearekin gurutzatuz. Era honetan motibazioak era sakonagoan aztertzen dira, egindako analisia zehatzagoa izanik. Hirugarren kapituluan, ikerketan parte hartu dutenen euskararekiko uste eta jarrerak aztertzen dira esparru desberdinetatik begiratuz; normalkuntza, erabilera, ikas-irakaskuntza eta enpresa. Laugarren kapituluan, euskaldunontzat mesedegarri eta oztopatzaile izan daitezkeen aurreiritziak aztertzen dira: euskarari buruzkoak, edozein hizkuntza eta ikaskuntzari dagozkionak (baita euskarari ere) eta elebitasunari buruzkoak. Interesgarria eta oso baliagarria da aurreiritziak eta uste orokortuak aztertzea, horiek elebitasuna edo eleaniztasuna egoera sustatzeko kaltegarriak edo mesedegarriak izan daitezkeelako. Bosgarren kapituluan, partaide "bai-bainakoak" aztertzen dira, aurrez emandako kontzeptuak erabilita. Bai-bainako bezala sailkatu dira, euskararekiko eta euskaren aldeko hizkuntza politikari buruzko jarrera ez-sutsua edo ez-grinatsua duten lagunak. Interesgarria da oso "bai-bainakoak" euskararekiko duten jarrera ezagutzea, euskararekiko jarrera epela dutenez rol aktiboa joka dezaketelako euskararen normalizazioan modu eta maila desberdinetan.

Kuantitatiboari dagokionez, galdesorta bat diseinatu da eta hau ikerketa kualitatibotik ateratako datu eta ideietan oinarritu da. Honetarako, euskaldunak ez diren EAEko 18-55 urte bitarteko biztanleria osoa aztertu da.

Seigarren kapituluan, azterketa kualitatiboan agertu diren jarrera eta aurreiritzietan oinarrituta ikerketa kuantitatiborako galdesorta berria eraiki da, eta galdeketa honen datuek osatzen dute azterketa kuantitatiboa. Bertan ikus daitezke zenbait jarrera eta aurreiritziren maiztasunak. Azken kapituluan, sintesia eta azken hausnarketa jasotzen dira. Aurreko kapituluetan banaka landutako gaiak modu adierazkorrean lantzen direlarik.

Liburu honetan eskaintzen den azterketa oso sakona eta konplexua da, besteak beste, erabiltzen duen metodologiagatik, aztertzen duen populaziogatik eta tratatzen dituen gaiengatik. Euskararen normalizazioari begira ere ekarpen garrantzitsua eta onuragarria egiten du. Izan ere, euskararekiko jarrera epela dutenak identifikatu eta hizkuntza egoera nola bizi duten deskribatzen baitigu. Azterketa hau egitea ezinbestekoa da, egoeraren analisi sakon batek ahalbideratuko duelako esku-hartze egokiak garatu eta diseinatzea. Horrenbestez, azterketa honek egoeraren nolakotasunaren berri emateaz gain, aurreiritzi horiek aldatu ahal izateko giltza eskaintzen digu. Badira aurretik zenbait lan euskararen egoera aztertzean, jarreretan atentzio berezia jarri dutenak, besteak beste: (Arratibel 1999, Azurmedi et al. 1998a,1998b, 2008a, 2008b, 2005, Etxeberria 1999, Eusko Jaurlaritza 2001, 2008, Garcia 2001, Ibarraran et al. 2007, Idiazabal & Kaifer 1994, Larrañaga 1995, Larrañaga et al. 2010, Lasagabaster 2003, Martinez de Luna & Berrio-Otxoa 2000, Usurralde 2004). Baina lan hau bereziki interesgarria eta era berean berritzailea da, besteak beste; aztertzen duen eragin-taldea euskaldundu ez dena delako, erabilitako metodologia…. Eragin talde hau aztertzea interesgarria eta aldi berean estrategikoa izan daiteke, euskararen normalkuntza prozesurako eragile giltzarri izan daitekeelako.

Bukatzeko azpimarratu nahi da, ikerketa hau azterketa eredu bezala oso baliagarria izan daitekeela, beste eragin esparru edo bestelako populazio batetara zabaltzeko, adibidez; 18 urte baino gazteagoak edo etorkin populazioa Horregatik guztiagatik, interesgarria eta gomendagarria da oso liburu hau, hizkuntzen normalkuntzen zein hizkuntzen jarreren eta aurreiritzien egoeraren inguruan interesa duen ororentzat. ●

ERREFERENTZIAK

Arratibel, N. (1999). Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioaren errola. Bilbo: EHU/UPV

Azurmendi, M.-J. & Bourhis, R. (1998). Presentación del proyecto de investigación "ICYLCABE-1996": identidades culturales y lingüísticas en las Comunidades Autónomas Bilingües (CAB) de España. *Revista de Psicología Social*, 13, 547-558.

Azurmendi, M.-J., Bourhis, R., Ros, M. & García, I. (1998). Identidad etnolingüística y construcción de ciudadanía en las Comunidades Autónomas Bilingües (CAB) de España. *Revista de Psicología Social,* 13, 559-589.

Azurmendi, M.-J. & Larrañaga, N. (2008). La inmigración emergente en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV), desde la sociedad de acogida: la aculturación. In: J.F. Morales, C. Huici et al. (eds.), *Método, Teoría e Investigación en Psicología*. Madrid: Pearson.

Azurmendi, M.-J., Larrañaga, N., & Apalategi, J. (2008). Bilingualisn, Identity and Citizenship in the Basque Country. In: M. Niño-Murcia & J. Rothman (eds.), *Bilingualism and Identity. Spanish at the crossroads with other languages.* Amsterdam/Philadelphia: J. Benjamins.

Azurmendi, M-J., Larrañaga, N., Etxepeteleku, H., Apalategi, J., Sánchez de Miguel, M.. & Ruiz, S. (2005). Construcción psicosocial de la identidad nacional y estrategias de aculturación en la Comunidad Autónoma Vasca. In: J.M. Sabucedo, J. Romay & A. López-Cortón (comps.), *Psicología Política, Cultura, Inmigración y Comunicación Social (IX Congreso Nacional de Psicología Social, A Coruña, 2005)*. Madrid: Biblioteca Nueva.

Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco (2008). IV Inkesta Soziolinguistikoa. *Vitoria/Gasteiz:* Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco.

Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco (2001). *Euskararen jarraipena III/ La Continuidad del euskar III/ The continuity of Basque III/ La continuité de la langue basque III*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco.

Etxeberria, F. (1999). *Bilingualismo y educación el el País Vasco*. Donostia: Erein

Garcia, I. (2001). *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak: identitate etnolinguistikoaren garrantzia*. Bilbo: EHU/UPV.

Ibarraran, A., Lasagabaster, D., Sierra, J.M (2007). *Inmigración y aprendizaje de lenguas en un contexto bilingüe.* Bilbao: Lete.

Idiazabal, I. & Kaifer, A. (Eds.) (1994). *Eficacia Educativa y Enseñanza Bilingüe en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: IVAP.

Larrañaga, N. (1995). *Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean.*(Doktore Tesia). Bilbo: Deustoko Unibertsitatea.

Larrañaga, N., Azurmendi, M.J, Berasategui, N., Etxepeteleku, H. (2010). Aniztasun linguistiko eta kulturala euskal eskolan. VIII. Euskal Soziologia Kongresua, Bilbo, otsailak 10-12, (paper).

Lasagabaster (2003). *Trilingüismo en la enseñanza: actitudes hacia la lengua minoritaria, la mayoritaria y la extranjera.* Lleida: Milenio Usurralde, I. (2004). *Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar etnolinguistikoa.*

TOWARDS MULTILINGUAL EDUCATION. BASQUE EDUCATIONAL RESEARCH FROM AN INTERNATIONAL PERSPECTIVE

Jasone Cenoz
Multilingual Matters, 271 or.
Bristol, 2009

Aspalditik ezagutzen dugu Jasone Cenozen lana eleaniztasunaz eta hizkuntzen irakaskuntzaz. EHUko Ingeles Filologia arlotik lehenik, eta Hezkuntza Zientzien fakultatetik gaur egun, langai hauen gainean nazioarteari begira gehien ikertu duen ikertzaileetako bat da. *International Journal of Multilingualism* aldizkariko editore denak Euskal Herriko hezkuntza eleaniztunaren lekukotza eraman du nazioarteko foro esanguratsuenetara. Liburu honetan topiko horri buruzko ikerketa bildu eta nazioarteko eragileen begirako harilkatze-lan bikaina egin du.

Ezaguna da gure artean Euskal Herriko hizkuntz hezkuntzaren gainean dagoen jakin-mina nazioartean. Batzuei euskara biziberritzeko ahalegina zaie interesgarri; beste batzuentzat eredu elebidunak dira aztergai; atzerriko hizkuntzaren hezkuntza interesatzen zaie bestetsuoi etab. Liburu honek bolumen bakarrean biltzen ditu zenbait diziplinaren baitan egindako ikerlanak. Ez da bilketa-lan hutsa nolanahi ere, ikuspegi bat, autoretza garbi bat antzeman liteke testuan.

Hezkuntza eleaniztuna ikertu duten ikuspegi guztien arteko osagarritasuna azaleratu du Cenozek bere lanean. Bereziki interesgarria gertatzen da eleaniztasuna ulertzeko oinarri soziolinguistikoaren aldarrikapena. Maizegi eleaniztasuna zeru-lurren gainetik dagoen konstrukto bat legez kontzeptualizatzen da. Liburu honek hemen eta orain koordinatuetan kokatzen du eleaniztasuna, hizkuntza-komunitate bat(zu)en klabeetan ainguratuta. Hor dago bere begirada pertsonala. Uste dut nazioarteari egiten dion ekarpena handia dela, hain zuzen ere, eleaniztasuna ulertzeko modu baten posizionamendua indartzen duelako. Sarritan hezkuntza eleaniztunaz hitz egiten da hiztunaren planora mugatuta, alegia, hiztun eleaniztunak lortzeko tresna gisa. Hezkuntza eleaniztuna xede horietara murrizteak, ordea, ez du zentzurik, eleaniztasun soziala lortzeko tresna ere bada-eta. Ikuspegi hori da gure testuinguruaren indargunea.

1. irudia. *Towards multilingual education. Basque educational research from an international perspective* argitalpenaren azala.

Nazioarteaz hitz egin badugu ere, esan dezadan bertakoentzat ere erabilgarria dela lan hau. Nekez aurkituko dugu bolumen batean hamarkadaz hamarkada EAEko hezkuntzan hizkun-

tzak, hizkuntza-komunitateak eta hiztunak aberasteko egin den ahaleginaren argazki osatuagorik. Hezkuntza eleaniztunak ertz asko ditu, nola ukatu. Horietako bat da ikerketarena, praxian egin dugunaren azterketa kritikoa. Ekintzailea den herri honetan biziki interesgarria da ikerketaren aldarrikapena egitea, elkarrekintzan baitaude biak, bai egiten duguna, bai egiten dugun horren gaineko ikerketa eta gogoeta.

10 kapitulutan banatzen den lan honek 2.ean du, bestalde, proposamenik interesgarriena. Autoreak hezkuntza eleaniztuna ulertzeko moduak *continuum* batean kokatzen ditu. Aldagai linguistikoak, soziolinguistikoak eta hezkuntzazkoak erabiltzen ditu hezkuntza eleaniztunaren termino polisemikoari argitasuna ekartzeko: tresna hau erabilita errazago sailka litezke hezkuntza eleaniztuna ulertzeko eta egiteko modu ezberdinak. Zedarritze hori guztiz pertinentea da egun, bai nazioarteari begira, bai bertako hizkuntz plangintzari begira. Planteamendu aberats eta integratzaileenak zein diren argudiatzeko tresna interesgarria da hau; Ekolinguistikaren terminoak erabiliz, ahalik eta eleaniztasun jasangarrienak bidera daitezen. Liburu honek ongi erantzuten dio konplexutasun horri, ikuspegi glokal eta etiko horri.

Ikus dezagun nola antolatu diren liburuko kapituluak:

- Lehendabiziko kapituluan (*Why Multilingualism?*) termino nagusiaren eta EAEko hezkuntzaren kokapena eskaintzen digu autoreak.
- Bigarrenean (*Towards a Typo-logy of Multilingual Education*), gorago esan bezala, oso erabilgarria gerta dakigukeen tresna eskaintzen digu, hezkuntza eleaniztuna sailkatzeko bidea.
- Hirugarren kapituluan (*Using the Minority Language as the Language of Instruction*) euskarak hezkuntzan duen trataera eta dituen erronka nagusiak azaltzen dizkigu.
- Laugarrenean (*Learning through the Minority Language: Linguistic and Academic Outcomes*), EAEko hezkuntzan lortzen diren hizkuntzen emaitzak ikuspegi kritiko batetik aurkezten zaizkigu.
- Bosgarrenean (*Third Language Learning and Instruction through the Third Language*) eta seigarrenean (*Learning English and Learning through English*) ingelesaren trataera eta ikerketen emaitza nagusiak erakusten zaizkigu.
- Zazpigarren kapituluan (*The Influence of Bilingualism on L3*) Cenozek bere doktore-tesian aztergai izan zuen gaia aurkezten digu, elebitasunaren eragina 3. hizkuntza ikasterakoan.
- Zortzigarren kapituluan (*Identities and Attitudes*) identitatea eta jarrerei buruzko ikerlanak aztertzen ditu.
- Bederatzigarren kapituluak (*The Age Factor in Bilingual and Multilingual Education*) adinaren faktoreak hezkuntza eleaniztunean duen eragina du aztergai.
- Azken aurreko kapitulua (*Bilingual and Multilingual Education at the University*) unibertsitateaz eta helduen hizkuntz irakaskuntzaz arduratzen da.
- Azkenik (*Conclusions and Future Perspectives*), etorkizuneko erronkak eta ikerlerroak laburbiltzen ditu Cenozek.

Laburbilduz, lan honetan balioan jartzen da, beraz, hezkuntzan egindako ekarpena testuinguru soziolinguistikoaren argitan, bere balio soziala azpimarratuz. Liburuaren azalak iradokitzen dizkigu irakurleak bertan aurkituko dituen bi dohai nagusiak: hezkuntza eleaniztunaren gaineko ikerketaren ikuspegi holistikoa eta ikertzailearen sintesi pertsonala.

Azaleko irudian puzzle moduko bat ageri zaigu, mutiko baten aurpegi eta letra mota ezberdinak tartekatuta. Nola mutikoaren aurpegierak hala hizkiak aniztasuna iradokitzen digute. Bestetik, mutikoa ez da edozein modelo, autorearen bizitzan pertsona garrantzitsua baizik. Liburu hau ez da edozein liburu, autorearen bizitzan gaixoaldi luze baten bidelaguna baizik.

Nekez topatuko dugu prosa zientifikoan idatzitako liburu batean norberaren sendagileei egindako eskertza. Horixe da liburu honetan duguna, ordea. Bi poz batzen dira honetan, bata profesionala, bestea pertsonala. Nolabaiteko bi isurien batura ematen da bertan, ikertzeko grina, jakin-mina, eta bizitzeko modu bat. Kasu-ikerketak eman die lotura bi unibertso horiei. Liburu hau da horren lekuko.

Nekane Goikoetxea